

Puntu kardinalak, euskaldunon buruhauste



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Betidanik izan dut arazoa puntu kardinalekin. Ñabardurak eta desberdintasunak dauden arren, erdaraz zein euskaraz gertatzen zaidala aitortzen dut; alabaina, argi baino argiago daukat euskaldun izate hutsagatik gertatzen zaidala hein oso handian.

Orain zaharkitu samar gelditu dira *Euskadi Norte* edo *Euskadi Sur* esamoldeak; jada ez ditugu erabiltzen. Nire baitan, aldiz, zizelkatuta bezala daude, gaztaroan hain usu erabiltzearen ondorioz edo. Duda barik, ni *del sur* sentitzen nintzen; hots, hegoaldekoa: (EHko) Hegoaldekoa, Europako hegoaldekoa... Tontakeria friboloegia irudituko zaizue, agian, baina egia borobila da: *para hacer bien el amor hay que venir al sur* zioen Rafaela Carrá-ren kanta hura entzutean, nik aipatutzat jotzen nuen nire burua; esan ohi denaren kontra, beti pentsatu baitut –neure eskarmentutik begiratuta jakina– euskaldunok txortan sarri eta ganoraz egiten dugula.

Espainiarrekin berba egitean, oster, behin eta berriz esaten zidaten ni *del norte* nitzela; *chicarrón del norte*, alegia. Euren, zalantza izpirik gabe, *Espainiako iparraldeko* adierazi nahi zidaten; nik, ordea, oso bestela neureganatzen nuen, penintsulako iparraldekoa nintzela adituz... edo aditu guran. Hura nire lehen

buruhaustea. Gero beste batzuk etorriko ziren.

Egun, normalduta dago bai euskaraz bai erdaraz *Iparralde* eta *Hegoalde* erabiltzea, euskaldunon artean behintzat. Baina horren harira ere gaizki ulertzeak edo, hobe esanda, zer ulertu ez jakiteak sortzen zaizkit askotxotan. Adibidez, Euskadi Irratian eguraldiaren berri entzuten dudanean, esatariak *iparraldean, euria; hegoaldean oskarbi* dioenean, ez dut jakiten zer jaso. Akaso Baionan aterkia hartu beharko luketela eta Bilbon hobe eguzkitarako betaurrekoak hartzea? Ziur aski ez; baina ehuneko ehuneko seguru ez naiz inoiz egoten. Edonola ere, Euskal Herriko alderdi geografiko soilari erreparatuz, hegoaldea Oion izan liteke, baina baita Tuteran ere; eta ez dut uste beti eguraldi berdintsua egingo duenik alde bietan. Zer ulertu, hortaz, *hegoaldean* diotenean?

Hori guztia gutxi balitz, beste fronte bat zabaltu berri zait orain urte gutxi, hainbat hizkuntzalarik jakinarazi zigutenean ez zela egokia *Iparraldeko euskara* esatea, baizik eta egokiagoa zela *Ekialdekoa* esatea. Hara! Beti *Iparralde* izan duguna, orain, bat-batean, *Ekialde* bihurtu al zaigu? Hori dela eta, are zailagoa zait orain parte meteorologikoa bete-betean konprenitzea. Hori katramila! ●

Defendatzeaz



CASTILLO SUAREZ
IRAKASLEA

Lehengoan, solasaldian, nire liburuen aurkezpenez hitz egiten bukatu genuen. Lehendabiziko liburua aurkeztu nuenean, nirekin batera egon zen Gorka Arrese editorea. Egun horretan bertan aurkezpen bat egin nuen Etxarri Aranatzek eta Juanjo Olasagarrek egon zen nire arrimuan. Ondotik etorri ziren Iban Zaldua, Jon Benito, Igor Estankona eta Beñat Sarasola. Nire liburuetako aurkezpenak egin dizkidaten guztiak gizonak izan dira, azkeneko liburuan izan ezik. Editoreak eta idazleak adostu ohi dute nor egon den aurkezpenean eta,

gezurra eman dezakeen arren, artean ez nintzen horrenbeste jabetzen zeinen garrantzitsuak ziren erabaki horiek. Horregatik beharbada, azkeneko liburuen aurkezpenaz editorearekin hitz egiten ari nintzela emakume idazle batek —jakin batek, esan nahi dut— egin zezala proposatu nion editoreari. Berak liburua bakarrik defendatzea proposatu zidan. Eta horrela egin genuen. Defendatzea izan zen erabili zuen hitza eta proposa iruditu zitzaidan oso. Afera ez delako gizon batek egiten ziguna emakume batek egitea, guk geuk egitea baino. ●